

Konpainia honek dituen diru-iturriak bi dira. Alde batetik, produktuaren salmentagatik lortzen direnak ditugu, motorraren prezioa hegazkinaren tamainaren arabera zehaztua izango da. Izan ere, hegazkin bakoitzak pisu desberdina du eta potentzia desberdina beharko du. Hori dela eta, motorraren prezioa 2 milioitik 40 milioirako tartean ezarriko ditugu. Beraz, hegazkin bakoitzerako motorra eta prezioa desberdinak izango da, hegazkinaren tamainaren eta pisuaren arabera.

Bestetik, diru-laguntzak eskuratuko ditugu. Espainiako Gobernuak zenbait diru-laguntza ematen ditu, esate baterako, “ayudas para jóvenes emprendedores”, “ayudas para mujeres emprendedoras”, “ayudas a la innovación”, “ayudas y subvenciones para empresas de base tecnológica”, “ayudas y subvenciones de las comunidades autónomas” eta “ayudas en la internacionalización”. Horiek dira Olympus Aviation izango dituen diru-laguntza batzuk. Nolanahi ere, proiektuaren zehaztapen maila handitzen goazen heinean hauetako zein diren egokienak zehazten joango gara.